



3 HAUTESKUNDEAK
Lasarte-Oriak Ahal du-ko Arkaitz Nayarekin elkarrizketa

Udal hauteskundeak hurbiltzen doaz eta Lasarte-Orian aurkezten diren zerrenda guztien alkategiak elkarrizketatu ditu TXINTXARRI-k. Hurrengo zenbakietan udalerrientzat dituzten asmoak eta helburuak hobeto ezagutzeko parada izango da. Lehenengoa Arkaitz Naya da Lasarte-Oriak Ahal Du-ren zerrenda burua.



4 KULTURA
Irakurle txokoaren ikasturte amaierako ekintza bereziak

Diru-iturri propioen beharra ikusi du Irakurle Txokoak eta taldeari ekonomikoki bultzada bat emateko, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia antolatu dute maiatzaren 23rako. Bi saio egingo dira Manuel Lekuonan, 16:30ean lehenengoa eta 19:00etan bigarrena. Sarrerak salgai daude 7 eurotan. Horretaz gain, Jule Goikoetxea idazleak 'Euskal Estatuagintza Feminista' hitzaldia eskainiko du maiatzaren 19an kultur-etxean, 18:30etik aurrera. Hau doan izango da.

Aurtengoan Urnietako udalak eta Ttakunek, Lasarte-Oriako udalaren laguntzarekin, bat egin dute erromeriaren antolaketan Santa Krutz eguna ospatzeko. Goizean goizetik asko izan ziren bi herrietatik autobusez edota oinez Azkorte baselizara igo ziren herritarrak.

Azkorteko baseliza jendez bete zen atzo. Antolatzaileak eurien beldur baziren ere, azkenean egitarauan zeuden ekintza guztiak egin ahal izan ziren.

Goizean goiz abiatu ziren bi herrietatik herritarrak Azkorterantz. Batzuk oinez eta beste batzuk bi herrietatik atera ziren autobusetan. Lehenengo hitzordua gehientzat meza nagusia izan zen.

Mezatik atera eta Ttiriki-Ttarraka trikitixa eta pandero eskolakoek jaia girotu zuten euren doinu alaiekin. Hamaiketakoa egin eta musikaz gozatuz dantzara animatu zirenak ere izan ziren.

Herri kirolak

Ohi bezala, ikusmin handia eragin zuen herri kirolen erakustaldiak. Lasarte-Oriako Urtzi eta Beñat Telleria harri-jasotzaileekin, 29 eta 19 urte, aizkoran Julen Cañameres 25 urteko arostejiarra eta 28 urteko Ugaitz Mugertza mutrikuarra izan ziren.

Aizkolariak hasi ziren lanean. Hauek egur bana moztu zuten nork kolpe



Herri kiroletan aritu ziren herriko Urtzi eta Beñat Telleria harri-jasotzaileak.

gutxiagotan. Ugaitzek 57 kolpe emanda gailendu zen, Julenek 60tan lortu zuen eta. Jarraian, Urtzi Telleriak 150 kg-ko koadro zaharrarekin hiru jasoaldi egin zituen. Azkolariek berriz, egurra nork azkarrago moztu egin zuten eta honetan ere Ugaitzek bukatu zuen lehenengo 50 segundotan enborra moztuz. Hamar segundo inguru atera zizkion mutrikuarrak Cañameresi. Beñat Telleriak 138kg-ko zilindro zaharra lautuan jaso zuen.

Ondoren, proba konbinatuan aritu ziren bikoteka. Beñat Ugaitzekin eta Urtzi Julenekin batera lanean. 113kg-ko kubikoari lau jasoaldi eta egur bat moztu behar izan zuten sei alditan. Amaieran trontzari sei korte eman behar izan zizkioten.

Proba osoan zehar Beñat eta Ugaitz aurretik joan ziren arren, trontzian iaio aritu ziren Urtzi eta Julen eta azkenean, hauentzat izan zen garaipena. Ikusleek txalo



Musikak girotu zuen jaia eta bertsolariek amaiera borobila eman zioten.

zaparrada luzearekin saritu zituzten.

Azkenik, bertsolariek eman zioten amaiera errome-

riari, Anjel Larrañaga eta Patxi Etxeberria izan ziren oholtzan goizak emandakoaren inguruan kantatzen.

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

IEFPS USURBIL GLHBI

Ate irekiak maiatzaren 9an eta 16an (larunbatak)

Goi-mallako Erdi-mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Mekanika Elektrizitatea Administrazioa Energia eta ura Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

3. BATUKADA TOPAKETA

Bazkariko txartelak salgai

3. Euskal Herriko Batukaden Topaketak maiatzaren 16an erritmoz beteko du Lasarte-Oria. Aurten berrikuntza ugari dakarza topaketak, horien artean herritarrek partehartzaileekin batera Okendo plazan bazkaltzeko aukera dago.

Menua barazki edo oilazko paella goxoa, sagar tarta eta sagardo txotxa da. Prezioa 10 eurokoa da.

Dagoeneko bazkarirako txartelak salgai jarri dira Insausti tabernan, Jalgi Kafe-Antzokian, Trumoi tabernan eta Ilargi tabernan. Hauetara hurbildu ezin diren herritarrek txartelak eskatzeko beste aukera ere badute, info@batukadentopaketa.eus helbidean egin behar da eskaera.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, plaza mugatuak dira eta bazkarira doazen herritarren artean Gar&Gar markako hiru garagardoko kaxa bat zozketatuko da.

EMAKUMEEN ZENTROA

Ikastaro berriak

Lasarte-Oriako emakume zentroak bi kurtso berri eskaintzen ditu maiatzean. "Ezetz da ezetz, gureak kaleak eta gauak!!" da tailerretako bat eta bigarrena, "bikotean bizi, elkarbizitza hobetzeko tresnak".

"Ezetz da ezetz, gureak kaleak eta gauak!!" ikastaroak lau saio izango ditu 17:30etik 19:00etarako ordutegian hilabete-ko asteazketan, maiatzak 6, 13, 20 eta 27. Tailer honetan dauden indarkeria mota ezberdinak landuko dira, baita hauen jatorria ere. Parte hartzen duten neska eta mutilekin batera indarkeria matxistaren aurkako gida bat osatu eta San Pedro jaietan banatuko dela adierazi dute antolatzaileek.

Bigarrena, "Bikotean bizi, elkarbizitza hobetzeko tresnak" izango da. Honakoa hiru saioz osatuko da, ostiraletan 19:00etatik 21:00etara, maiatzaren 8an, 15ean eta 22an.

Ikastaroaren izenak dion bezala, bikotearen elkarbizitza izango du ardatz. Bikotea, emozioak, sentimenduak, afektua adierazteko eta garapenerako interakzio gunea da. Arrazoi hauengatik hain zuzen, zaila gertatzen da batzuetan adostasun batera iristea edo aukera berdintasunean oinarritutako elkarbizitza izatea elkarbizitza sinergikoa eta emankorra lortzeko. Tailer honetan gako batzuk emango dira bikotean elkarbizitza aberasgarria eta zorientatua izaten laguntzeko.

Bi ikastaroak emakumeen zentroan egingo dira eta haue-
tan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da 943 36 39 58 zenbakian edo emakumezentroa@lasarte-oria.org helbide-
ra idatzita.

AMARAUN KLUBA

"Jolasen altxorra" saioak

Aurten ere, Amaraun Klubeko lagunek "Jolasen Altxorra" ekimena antolatu dute. Saioetan alaba, anai, aita, amona, aitona, gurasoak... adin guztietako senideek batera jolasteko aukera izango dute. Jolasak ezagutzak eta baloreak oharkabean transmititu eta jasotzeko tresna dira eta senideek eginez gero, ez dago haurrentzat hoberik. Hizkuntza transmisioa ere garrantzitsua denez, saioak euskaraz izango dira.

Ekimenak lau saio izango ditu. Tximistarreta parkean hasiko da maiatzaren 11an; Okendo plazan maiatzaren 18an; Isla plazan, maiatzaren 25ean eta azkena, Zabaleta auzoan, ekainaren lehenengo astean Zabaletako festen barruan izango da. Hitzordua 17:00etan izango da, Zabaletako jaietako saioan izan ezik. Eguna eta ordua zehazteko daude.

Saioetan parte hartzeko ez da izenik eman behar. Amaraun Klubeko lagunek familiei gonbida egiten diete saioetara hurbildu, gozatu eta jolastera.

ARTEA

Arte erakusketa Merceron

Maiatzaren 7-17 bitartean, 50 artelan ikusgai

Lasarte-Oriako Udalak, Antxota artisten elkarteak eta herriko sortzaile batzuek elkarlanean antolatu dute arte erakusketa berezi hau. Guztira bederatzi egileren obrez gozatzeko aukera izango dute herritarrek ostegunetik hasita. Eskultura, pintura, musika, argazkilaritza eta zurgintza lanak dira.



TXINTXARRI

Guztionez Lasarte-Oria proiektua zonalde degradatuak "artearen bidez berpizteko" martxan jarri zuen udalak udazkenean.

Herritarrentzat herria atseginagoa egin eta merkatarientzat erakargarriago bihurtzea da udalaren asmoa.

Artisten mahaia bultzatutako erakusketa honekin, herriko artisten ahalmena erakutsi eta kultura artistikoa sustatu nahi dituzte, artista amateur eta profesionalagoen lanak elkarren ondoan jarritz.

Denera 50 bat lan izango dira, lau espaziotan banatuta.

Parte-hartuko duten bederatzi artisten arteak lau Antxotako kideak dira: Jose Luis Gonzalez (eskultura), Nerea Pascual (pintura), Oscar Barrera (argazkilaritza) eta Maria Llanos (musika). Gainontzeko artistak Ione Zabala (pintura), Gotzon Huegun (eskultura), Julian Toquero (pintura) eta Miguel Angel Oribe (eskultura) dira: "Gure helburua batera gauza anitz, handi eta polit bat egitea da mugimendu artistiko-kulturala herrian indartzeko. Jende onaren lanak ikusteko aukera dago, gonbidatuta zaudete", adierazi zuen Jose Luis Gonzalez Antxota elkartearen kidea.

Erakusketako ordutegia

Maiatzaren 7an inauguratuko da erakusketa, eta bide batez baita Mercero aretoa bera ere.

Ostegunean, 19:30etik aurrera atek irekiko ditu erakusketak, luntx moduko 'arte-potea' eta Maria Llanosen arpuren doinuek giroa.

Maiatzaren 8 eta 15ean 19:00etatik 21:00etara egongo da irekita. Hilaren 9, 10, 16 eta 17an goiz eta arratsalde: 12:00-14:00 eta 19:00-21:00 bitartean. Sarrera Mercero plazatik izango du erakusketak. "Herri bizi bat nahi dugu, artearen baloreak izango dituen kolore eta prisma askorekin", diote artistek.

PSE-EEren Kodigo Etikoa sinatu zuten

PSE-EEko udal hauteskundeetako zerrendako kideek alderdiaren kode etikoa onartu dute.

Azken hilabeteetan jakite-
ra eman diren ustelkeria poli-
tiko kasuen aurrean, PSE-EEko zinegotziek zintotasuna, gardentasuna edo zuzenbidea helburu dituzten hamahiru puntu bere egin dituzte.

Zinegotzi izanez gero, besteak beste, gobernu irekiaren oinarriak, gardentasuna, parte hartzea eta laguntzeko asmoa, jarraituko dituztela; epaiketa orala izanez gero dimisioa aurkeztuko dutela; ustelkeria, genero indarkeria,




jazarpen edo baztertzearekin zer ikusia duen auzi judizial batean parte hartu ez izanaren edo delitu larriekin egin ez izanaren baieztapena sinatuko dutela; haien esku dau-

den ondasun eta bitartekoen erabilera desegokirik egingo ez dutela edo 60 euro baino gehiagoko oparirik edo fabore pertsonalik onartuko ez dutela sinatu zuten agerraldian.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azumendi, Jon Altuna,
Nerea Eizaguirre
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Maidar Seguro, Jexux
Artebe, Gorka Alvarez, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

Arkaitz Naya Lasarte-Oriak Ahal Du alkategaia

"Giza babesa da lehentasuna"

Udal erabakietan herritarren parte-hartzea sustatu nahi du hautesle elkarteak

32 urteko lasarteoriatarra dugu Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle elkarteko alkategaia. Produktu elektronikoaren garapenean goi-mailan titulatu da eta erosketa kudeatzaile bezala lan egiten du. Lasarte-Oriak Ahal Du bere lehen aldia du udal hauteskundeetan eta hautagaia bozka bidez erabaki zuen.

TXINTXARRI (ERREDAKZIOAK ITZULIA)

Zeintzuk dira zure ustez Lasarte-Oriak momentu honetan dituen beharrak?

Lasarte-Oriako behar nagusia da, besteak beste, herritarren orain arte herria kudeatu duten alderdiek aurrera eramandako politiken ondorioz herrian dagoen geldialdi maila eta garapen eta bultzada ezaz kontziente izatea da.

Lasarte-Oriako politika egiteko modua aldatzea beharrezkoa da, politika jendearentzat berreskuratuz eta erakundeak guztien onerako lan egiteko tresnak erakiz. Gardentasunean, parte-hartzean eta aldaketaren borondatean oinarritutako politikak.

Era honetara bakarrik bermatuko dugu lasarteoriarren ongizate-estatua. Era honetara bakarrik geldialditik atera eta esparru guztietan erreferente izatera eramango duen jauzi kualitatiboa eman ahalko dugu.

Zein esparrutan eragin behar da gehien zuen ustez?

Herritarren partehartzean. Gu geuk lasarteoriarrok gure herriaren garapenean aktiboki parte hartzeko beharrezko errekurtso eta bitartekoak izan ditzagun.

Ekonomia, merkataritza sustatu eta langabezia tasari erreparatuta zein neurri proposatzen dituzue?

Aurrekontuan hamar pertsonen kontrataziorako 200.000 euroko partida bat esleituko dugu. Hauek sei hilabetetako kontratuak izango lirake eta beharrezkoa den lekuetan herriko mantenu lanak egiteko bideratuko ditugu.

Ekonomia soziala oinarri duten enpresen eraketa sustatuko dugu.

Pertsona ekintzaileak eta langile autonomoak lagunduko ditugu.

Herriko komertzioa babestuko dugu fiskalitatearen bidez eta berrindartzeko ekimenak sustatuz, Lasarte-Oriako komertzioek herrian

lana sortu ahal izatea dugu helburu.

Michelinen kafetegi zerbitzua ezarriko dugu.

Hirigintzari dagokionean, etxebizitza eta aparkaleku eskaintza herrian nolakoa da egun eta nolakoa beharko luke?

Eustatek (Euskal Estatistika Erakunde) eskaintako azken datuen arabera Lasarte-Oriako 700 bat etxebizitza daude hutsik.

Aparkalekuari dagokionez, ez da beharrezkoa gure herriko hainbat eremuetan kotxeak aparkatzeko dauden arazo larriak lasarteoriarrei azaltzea.

Krisia eta higiezinaren burbuilaren eztanda dela eta, alokairua hipoteka baino aukera hobea dela indartu da.

Lasarte-Oriak Ahal Duk etxebizitza hutsen alokairuaren alde egingo du. Gure herria etxe kaleratzeetatik libre egoteko moduak aztertuko dira. Etxeak berri eta igogailuak jartzeko plana berezi bat ezartzeko aukera aztertuko da.

Aparkalekuari dagokionez, berriz, Lasarte-Oriak Ahal Duk aparkaleku publikoko eremuak eratzeko sustatuko du.

Herrian dauden zerbitzu publikoei dagokienez, zer hobetu edo indartu behar da?

Lasarte-Oriak Ahal Duk gure herriko zerbitzu publikoak hobetzea eta sendotzea beharrezkotzat jotzen du. Ikastetxeetako eta kirol instalazioetako mantenua beharrezkoa da. Egoitza publikoak optimizatu behar ditugu, hala nola, Gaztelekua kultura eskaintza erakargarri eta parte hartzailearen bidez.

Emakumeen Zentro Zibikoa bultzatuko dugu, berdintasun erreala lortzeko errekurtsoak ezarri. Era berean, proiektu berriak sortu edo hauek parte hartzea bultzatzen duen asoziazionismoa sustatuko dugu.

Kultura alorrean, zeintzuk lirake lan ildoak? Euskarak zein leku dauka?



"Gure herriko zerbitzu publikoak hobetzea eta sendotzea beharrezkotzat jotzen dugu"

Lasarte-Oriak Ahal Duk kultur aniztasuna, kultura demokratikoaren garapena eta kultura ekipamendu eta gune berriak eratzeko sustatuko du.

Kultura aniztasuna kontutan duten, ekimen kultural, artistiko eta sortzaileak lagunduko ditu. Auzoak, kaleak eta plazak gune soziokulturalak izatea sustatuko dugu. Herri inguruko auzoetako jaiak berreskuratuko ditugu.

Euskarari dagokionez, kultura ondarea da eta hau babestu behar dugu, politizatu gabe edo onura politikoa eskuratzeko tresna modura erabili gabe.

Euskararen erabilera eta ezagutza sustatuko dugu eta Udalak bi hizkuntzatan egingo ditu argitalpenak.

Eta kirolak?

Kirola lehen mailako hezkuntza elementua da eta osasun iturri.

Lasarte-Oriak Ahal Duk kiroldegia berregin edo berri egiteko konpromisoa hartzen du. Erabakia herri kontsulta bidez hartuko litzateke. Gimnasioko makinak eta tresnak berehala berritzeko, futbol eta errugbia egiteko kirol gune berriak egiteko aztertuko, kirol

elkarte eta guraso elkarteak laguntza handitzeko eta entrenamendu orduetan kirol federatu edo eskola kirola egiten duten 16 urte azpiko haur eta gaztetxoek udal instalakuntzen doako erabilera izateko konpromisoa hartzen du.

Zer iruditzen zaizu herriaren parte hartzea erabakietan eta ekimenetan?

Lasarte-Oriak Ahal Duk sistema demokratiko batean herritarren parte hartzea funtsezkoa dela uste du. Dugarik gabe, herritarren erantzukizuna eta kontzientzia nabarmenduko ditugu. Herritarren kontzientzia izan eta guztioi dagozkigun gaientan parte hartzeko ardura hartu beharko luke. Gaur egungo ordezkariak dituen demokrazia honetan herritarra zein alderdi politikoa bozkatu nahi duen erabakitzeko da bakarrik protagonista eta lau urteetan bigarren mailan dago, ikusle soila da. Guk, Lasarte-Oriak Ahal Duk herria protagonista izatea nahi dugu eta horretarako auzo elkarteak sustatuko ditugu, hauek zinegotzigo bakoitzean parte-hartze politikak

martxan jartzeko. Herriarentzat garrantzitsuak diren gaientan, horrela badagokio, erabakitzeko herri galdeketa loteslea ezarriko dugu eta aurrekontuetan gastu publikoaren erabilera finkatu eta lehentasunak erabakitzeko parte-hartze sistema bat ezarriko dugu.

San Pedro jaiak deszentralizatuak izan behar dute edo Okendok izan behar du gune bakarra?

Lasarte-Oriako herria San Pedro ermitaren inguruan sortu zen. Herria Lasarte-Oriako dorretxearen zegoen, beranduago Okendo bezala ezagutuko zena eta hainbat oinetxe.

Hainbat mende igaro dira eta gure herria Lasarte-Oriako gaur egun. Mende hauetan zehar, auzo ezberdinak sortu eta garatu dira guztiak Lasarte-Oriako barruan. Horregatik San Pedro jaiak deszentralizatzeko aldekoak gara. Izan ere, auzo guztiak herriaren parte direla sentitzeko era bat baita.

Zeintzuk dira finkatutako lehentasunak eta erronkak?

Gure lehentasunak giza babesarekin daude lotuak. Hori dela eta, pertsona eta familia ahulei zuzendutako herritarren erreskate plana egingo dugu. Lasarte-Oriako guztiek bizitza duina izatea ziurtatu behar dugu. Hori guztia, gardentasunean eta aldaketa nahian oinarritutako politika eginez.

Gure erronka nagusia Udalean ordezkariak dituen alderdi politikoa guztiek Lasarte-Oriako herritarren onerako elkarrekin lan egitean datza. Erronka honek ez du Udalean egon den alderdirik oraindik gaititu.

Alkate izatekotan zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Lasarte-Oriak Ahal Duk alkate izateko eskuratzeko badu, lasarteoriatarra izango da alkate.

Horretarako, lehenik gure herritari ahotsa eta bozka emateko herritarren parte hartze araudia egin eta onartuko genuke.

Nolakoa herria irudikatzen duzu lau urte barru zure zerrendak gobernatuko balu?

Garapen bidean egongo den lasarteoriarrek kudeatutako Lasarte-Oriako.

Irakurle Txokoaren ikasturte amaiera

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldiak eta Jule Goikoetxearen hitzaldiak itxiko dute urtea

Bigarren ikasturtea du Literatur Txokoak sortu zenetik. Aurten, diru-iturri propioen beharra ikusi dute eta taldeari ekonomikoki bultzada bat emateko, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia antolatu dute maiatzaren 23rako. Bi saio egingo dituzte Manuel Lekuonan, 16:30ean lehena eta 19:00etan bigarrena. Horretaz gain, Jule Goikoetxea idazleak 'Euskal Estatu-gintza Feminista' hitzaldia emango du maiatzaren 19an kultur-etxean, 18:30etik aurrera.

TXINTXARRI

Euskarazko literatura irakurtzen dugu, eta literaturaekin gozatzeaz batera, Euskara eta Euskal kultura indartzea eta euskararentzako arnagune berri bat sortzea izan dira gure helburuak", adierazi zuen Donetz Iradi Irakurle Txokoko kideak.

Hilabetero euskarazko liburu bat irakurtzen dute eta amaitzean, idazlea bera gonbidatzen dute herrira. Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak gidatuta, mahai-inguru batean liburuaren iritzi eta kritikak partekatzen dituzte. Maia-tzean amaituko dute bigarren ikasturteko jarduna, zortzigarren saioarekin.

"Txokora hurbildu diren hainbat pertsona orain hasi

dira euskaraz irakurtzen, euskarazko literatura ezagutzen eta gozatzen", adierazi zuten txokoko kideek.

Pailazoaren emanaldiari dagokionez, 'Txo Mikmak Txikia' ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute maiatzaren 23an kultur-etxera hurbiltzen direnek. Txo Mikmak Ternuako india da eta Ternuatik Euskal Herriraino etorriko da bere balearekin batera. Itsasoa zikin topatuko du, aitona Rogerekin bat egin eta XVI. mendeko egurrezko baleontzira igota mundu hobe baten alde nabigatuko dute.

"Laguntza emateko prest agertu ziren herriko pailazoak eta guk, esker onez, onartu egin genuen eskaintza", diote Irakurle Txokoko kideek.



Joan den astean aurkeztu zituzten Irakurle Txokoaren ikasturte amaierako ekitaldiak.

Herritarren partaidetza

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunear, Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak, Xumela abesbatza, Literatur Txokoko kideak dantzan eta kantuan... Denetarik izango da. Kopla berezi batzuk ere prestatu dituzte denen artean. Txapas omenduko dute, Xumelako zuzendari lanetan bederatzi urte daramatzan gizona.

Bestalde, Literatur Txokoko ikasturtea amaitzeko, Jule Goikoetxea idazle eta EHUko irakasle hernaniarrak 'Euskal Estatu-gintza Feminista' hitzaldia eskainiko du maiatzaren 19an kultur-etxean, arratsaldeko 18:30etik aurrera.

Hitzaldia irekia da eta bertara joateko gonbitea luzatu zuten Irakurle Txokoko kideek. Ekitaldi honekin itxiko dute bigarren ikasturtea.

Sarrerak salgai

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikustera joateko sarrerak salgai daude Lasarte-Oriako Jalgi, Artizar eta Urruzola mertzerian. Eskualdean, Usurbilgo Bordatxo tabernan, Andoaingo Ernaitza liburudendan, Hernaniko Irrigoenea okindegian, Astigarragako Ikatza tabernan eta Añorgako Jolas-etxea tabernan. Sarreraren prezioa, 7 eurokoa da. Jule Goikoetxearen hitzaldia doan.

Udaltopen, udaletako hizkuntza araubidea hizpide

Asteazken eta ostegunean, Azenbait adituk hizkuntza legea izan zuten hizpide Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen duten jardunaldian. "Nola bete hizkuntza legea, lege hizkuntza galdu gabe?" izan da Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak zazpi-garren edizioan aukeratutako gaia. Udaletako hizkuntza araubideak erabateko gaurkotasuna du, izan ere, Legebiltzarrean eztabaidan da udalen lege-proiektua. Harre-ara ekitaldian Aldundiko Eus-

kara Zuzendaria Zigor Etxeburua, Udalbiltzako lehendakari Mertxe Aizpurua, UEMAKo Maren Belaustegi eta Lasarte-Oriako alkatea Pablo Barrio izan ziren.

Udaletako hizkuntza-legea ondo ezagutzen duten solaskideak izan dira; Eusko Jaurlaritzako legelaria den Zelai Nikolasek Udal Legeak udale- tako hizkuntza politika zertan hobe dezakeen azaldu zuen; EHUko zuzenbide irakasle Iñigo Urrutiak Udal Legea hobetzeko proposamenak jarri zituen mahai gainean, eta

Iñigo Lamarka Gipuzkoako Batzar Nagusietako legelariak, euskararen legea aldatzeko aukeraz aritu zen.

Euskararen lurraldeetako beste errealitateak ezagutzeko Laura Perez Nafarroa Aldatu Ahal Dugu alderdiko idazkari orokorra, Ione Josié Errobi Herri Elkargoko euskara teknikaria, Begoña Garmendia Azkoitiko Udaleko idazkaria edota Aramaioko euskara departamentuko arduradunak izan dira. Ondorioetan, Sus-trai Colinak bi eguneteko mezuak bildu zituen.



Harrera ekitaldian, jardunaldien antolatzaile eta laguntzaileek izan zuten hitza.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateak



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Kirol instalazioen azterketa

Kiroldegi berria egin edo dagoena berri batoratuko da

Lasarte-Oriako kirol instalazioen "zaharkitze egoera" identifikatu du Udalak 'Jolasteko eta Jokatzeko' plan estrategikoan. Alor honetan "esku-hartze bat" beharrezkoa dela jakitun, Udaleko kirol sailak jardura fisikoaren planaren garapena puntu honetatik hasia erabaki du.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako kirol sailak, 2014. urtean zehar, "Jolasteko eta Jokatzeko. Lasarte-Oriako kirol eta jardura fisikoaren plan estrategikoa" gauzatu zuen 30 bileren bidez. Herriko kirolaren egoera ezagutu eta herritarren beharretan oinarrituta, eskaintza hobetzeko eman beharrezko pausoak definitu zituzten. Plan hau jada amaituta eta onartuta dago. Eta orain, planaren gainean lehen urratsak eman nahi ditu Udalak.

Instalazioen azterketa

Kirol instalazioei dagokienean, herritarrek zein behar eta zein arazo dituzten ezagutzeko, hainbat informazio iturri erabili dituzte. Hala nola, kirolaren plan estrategikoan jasotako ekarpenak, kiroldegiko erabilitzaileen artean urtero egiten den inkestako proposamenak, udaletxeko erregistro bidez

jasotako kexak, Kirol Mahaian elkarrekin ordezkariek alde bat jasotako ekarpenak etab.

Ondorio nagusiak

Kiroldegia eraiki zenean, duela 27 urte, garai hartako kirol-eskaera bestelakoa zen. "Ordutik, unean uneko moldaketak egin dira eguneratzeko eta konponbidea eman zaie, ahal izan den neurrian", adierazi zuten Taxio Arrizabalaga zinegotziak eta Karlos Altuna kirol teknikaria. "Kiroldegian eta Kirolgunean etengabe egin dira berrikuntzak, baina beharretako batzuei erantzutea ez da horren erraza eta bestelako konponbideak eskatzen dituzte".

Ondorio argia atera dute, kiroldegia zaharkituta geratu da. Hainbat instalazio eta ekipamendu berritzeko premia gero eta nabarmenagoa da. Zailtasunak daude zerbitzu batzuk behar bezala emateko

edo nahi duten herritar guztiei zabalatzeko, eta batez ere leku edo espazio falta da arazo nagusia, ordu jakin batzuetan.

Beraz, berrikuntza edo eraldaketa garrantzitsu bat burutzea beharrezkoa dela ondorioztatu du Kirol sailak. "Herritarren iritziz kiroldegi berri baten proiektuan zer aldatu eta zer hobetu beharko litzatekeen aztertuta dago eta horren gainean egingo dugulan", adierazi zuten Arrizabalaga zinegotziak.

Teknikarien proposamenak

Behin herritarren beharrek zein diren ezagututa, txostena udaletxeko hirigintza eta kirol saileko teknikariek hartuko dute. "Nolako kiroldegi bat nahi genukeen jakitea ez da nahikoa. Kiroldegi hori non, nola eta zein kondiziotan



Taxio Arrizabalaga kirol zinegotzia eta Karlos Altuna kirol teknikaria.

nahi dugun ere jakin behar dugu. Horretarako, egun ditugun instalazioek eskaintzen dituzten aukera eta zailtasunak baloratu behar dira, izan nahi ditugun instalazio berrien kokapenak zein arazo eta zein aukera planteatzen dituzten ikusi behar da; egungo instalazioen ohiko jarduean zein moldaketa egin beharko liratekeen baloratu behar da; ze espazio behar diren zehaztu; espazio hauen kokapenak zein izan behar duen baloratu; kostu ekonomikoak kalkulatu etab., gero erabakiak hartzeko", esan zuten Arrizabalagak.

Udal Teknikariek beraz, kirol-instalazio berriak izateko aukerak, aldeko eta kontrako puntuekin, aztertu eta proposatu dituzte hurrengo hilabeteetan. "Prozesu barnebiltzaile bat jarriko da martxan. Orain artean planteatutako aukerak, eraberritzeak edo handitzeak, eta bestelako proiektu berriak aztertuko dira, tartean kiroldegi berri baten kokalekua". Behin hau eginda, hurrengo pausoa kirol-eragileekin eta oro har herritarrekin partekatzea izango da Arrizabalagako dienez, "etorkizuneko proiektuaren norabidea" adosteko.

Ibon Fernandez Iradiren askatasuna eskatu dute



Ostegunean egin zuten agerraldia hainbat herritarrek.

Herritar talde batek deituta agerraldia egin zuten Mercero plazan larri gaixo dagoen Ibon Fernandez Iradi herriko presoaren askatzea eskatzeko. Zigor Iriondok Ane Labakaren bertsoa abestu zuen bertan bildutako herritarren aurrean. Jarraian, azaldu zuten "beste behin Parisko Dei Auzitegiak zer erabakiko zain. Zain, Ibon Fernandez Iradi gaixotasun larri eta sendaezina duenean". Denborak bere aurka egiten duela esan zuten "bi medikuek, kartzela gaixotasunarekin bateragarria ez dela adierazi ondoren. Zain 2014ko ekaineko ebazpenean epaitegiak Ibonen gaixotasun egoerak zigorra etetea justifikatzen duela aitortu zuenetik".

Bi urte pasa dira zigorra etetea eskaera egiteko tramiak hasi zituenetik eta "behar duen tratamendua jasotzeko kalean behar lukeela bide ezberdinetatik aitortu zaion arren, kartzelan jarraitzen du". Martxoaren 26an hirugarren mediku txosten bat jaso zen "egungo legediaren arabera, bakarra nahikoa denean". "Zergatik ez dira guztion giza eskubideak errespetatzen? Bada garaia hitzetatik ekintzara pasa eta Ibonen giza eskubideak bermatu daitezkeen".

Larri gaixo dauden presoak etxera ekarri behar direla aldarrikatu zuten eta Ibonen epaia jakingo den egunerako, osteguna maiatzak 7, manifestazioa deitu dute Okendotik abiatuta 19:30ean.

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeko ere bada.

erronkarako #prest

Katalin Madariaga,
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,
3. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 9
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MAIATZAK 16
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 21
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MAIATZAK 9
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MAIATZAK 16
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 23
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIALZA · MAIATZAK 30
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · MAIATZAK 30
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 23
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ARETO-FUTBOLA.

Ostadar Igoera Faserako sailkatu da, hirugarren eginda

Gipuzkoako II. mailara jauzi egiten saiatuko da Ostadar Cecilia fruta denda Kebab Lasarte taldea

Liga erregularra amaitzeko azken jardunaldiaren faltan, Ostadar Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte taldeak igoerako play-offak jokatzeke txartela lortu zuen. Edu Mena entrenatzailearen mutilek denboraldiko balentria egin dute. Baina bidea ez da amaitu. Datorren denboraldian Gipuzkoako II. mailan jokatzeke egingo dute borrokan. Finalurrekoa irabaziz gero, mailaz igoko dira.

JON ALTUNA EGITEGI

Edu Mena da lasarteoriatarren entrenatzailea. Taldeko jokalarien zerrenda osatzen dutenak, honako mutilak: Urtzi Azpiroz, Jose Leonardo Cevallos, Mikel Escribano, Iñaki Francisco, David Garcia, Angel Ibarra, Zigor Iriondo, Karlos Iturrarte, Yosu Lopez, Francisco Moreno, Roberto Perez, Iñigo Pika-bea, David Piñero, Gorka Redondo, Ruben Ruiz, Diego Alexander Tovar eta Javier Vecilla.

Urtebetean, playoffera

Aldaz HK eta Usurbilgo Makax desagertzetik jaio zen Ostadar. Herrian areto-futbola indartzeko etorkizuneko proiektu sendo baten zutabeak jartzea zen asmoa, III. Nazionaleko taldearen harrobi eta zubi lanak egingo zituen.

Gauzak horrela, Edu Mena entrenatzailea buru, herriko

txapelketako jokalariek batzuk elkartu eta Aldaz HK eta Makax taldean zeuden jokalariek batzuekin batera, taldea ateratzea erabaki zuten.

Balorazioa "ezin positiboa" da taldeko arduradunen hitzetan: "Herriaren inplikazioa bilatu dugu, bai ekonomikoki babesleei dagokienez eta baita herriari kirol eskaintza zabaltzeko asmoz ere".

Izan ere, azken hamarkadetan estu loturik egon da gure herria areto-futbolarekin, baina azken aldian ez dira areto-futbolaren garairik onenak Lasarte-Orian. Herriko txapelketako talde kopurua izugarri jaitsi da eta talde federatuak mantentzeak sekulako esfortzua eskatzen dio kirol hau maite duen herritar talde honi. Dena den, ez daude etsitzeko: "Jokalarien ahalegina antolatzaileenarekin batu behar dugu, eta halako play offak jokatzeak indarra ematen digu aurrera jarraitzeko", adierazi dute.



Ostadarreko jokalariek joan den asteko Umore Onaren aurkako partidari ekin aurretik.

Lana, eta oparia

Urte hasierako lehen helburua taldea maila honetan egonkortzea zen. Denboraldi hasiera eskasa egin zuten ordea. Lehen lau jardunalditan bi puntu baino ez zituzten eskuratu. Hurrengo zazpi jardunaldietan, zazpi garaipen. Igoera fasea jokatzeke ametsa posible zela ikusi zuten.

Bigarren itzulia gorabeherekin hasi zuten, baina han eta hemen puntuak pilatuz, azkenurreko jardunaldian lortu zuen matematikoki igoera fasea jokatzeke txartela. "Taldea sekulako giroa dago, elkarrekiko laguntasun eta errespetu handia, horiek

dira arrakastaren giltza", azpimarratu dute Ostadarreko kideek.

Hurrengo urratsa

Liga erregularreko azken neurketa 3-4 irabazi zuten ostegun e a n l d i a z a b a l Gorrotxategiren aurka. Azken sailkapenean hirugarren gertuta, igoera faseko partidua etxetik kanpo jokatuko dute Muxarraren aurka, Donostian. Final handia berriz, Donostiako Intxaurrondon jokatuko da printzipioz, baina horretarako finalurrekoa irabazi beharko dute.

Beste finalurrekoa liga irabazi duen Alustiza Autobu-

sak Orio eta Anoetaren artean jokatuko da.

Gauza bat da argia, igoera garaipen bakarrera dutela lasarteoriatarrek. Izan ere, finalurrekoa irabazita, automatikoki lortuko dute datorren denboraldian Gipuzkoako II. Mailan aritzeko txartela, bi talde igo-tzen direlako, bi finalistak.

Gauzak horrela, emozio handiko asteburua dute aurretik Ostadarreko mutilek. Ligan gol gehien sartu duen taldea da herritarrena, eta gutxien jaso duena berriz Muxarrarena, liderraren atzetik. Erasoa eta defentsaren arteko lehia ikusgarria izango da ziur, igoerako txartela jokoan.

DARDOAK.

Mendi Kafe Rockeko dardo jokalariek txapeldun Salamancako Openean

Herriko tabernetan dardo zaletasun handia dago. Horren erakusgarri da Mendi Kafe Rockeko dardo jokalariek Salamancako Openean aritu zirela lehian apirilaren 17, 18 eta 19an, lagunarteko giro onean.

Mendik sei talde eraman zituen denera Gaztela eta Leon aldera. Horietatik bi nabarmendu ziren, 03 eta 04, hurrengo fasera igaroz.

Jose Manterola, Unai Fale-ro, Juankar Pelaez, Jose Perez eta Javier Rodriguez lasarteoriatarrek txapela jantzi zuten gainera, taldekako cricket proban. Lortutako emaitza honek Espainiako txapelketarako txartela eman die, eta orain buru-belarri hasiko dira hilabete batzuk barru ospatuko den estatuko zita garrantzitsuena prestatzen.



Europar lehiatzeko txartela lortu dute taldekako cricket proban.

Banakako sailkapenari dagokionez, 501 proban, Jose Maria Perezek lehen postua erdietsi zuen Salamancan, Jose Maria Txemai hirugarren sailkatu zen eta loar Gainza 13. izan zen emakumezkoetan.

Ohi bezala, gogor entrenatzen jarraituko dute herritarrek Mendi Kafe Rocken. Ziurrenik, Loquilloren musika entzunez finduko dute punteria tabernako dianara dardoak behin eta berriz jaurtiz.

IGERIKETA.

Leire eta Ainhoa Martin ahizpa bikiak Caceresen, Espainiako CSD Txapelketan

Bi alebin gazteek Euskal Selektzioarekin lehiatu zuten aurreko asteburuan. Ainhoa Martin 100 tximeleta eta 200 bizkar frogetan aritu zen eta bietan markak hobetzea lortu zuen. 100 tximeleta frogan 27. sailkatu zen 1'26"64ko marka eginez eta 200 bizkar frogan ere postu bera eskuratu zuen 2'56"18 markarekin.

Bere ahizpa bikia Leire, berriz, 100 bizkar eta 800 libreak aritu zen. Leirek, bere banakako frogaz gain 4x200 libre eta 4x100 libre errelebutan ere hartu zuen parte. 100 bizkar frogan bere aurreko marka ia 5 segundutan hobetzea lortu zuen 1'17"29 eginez eta 17. sailkatuta. 800 libreak ere errepasso handia eman zion bere aurreko markari, 10"43"40 markarekin aurrekoa minutu erdian baino gehiago hobetu zuen herritarrek.

Sailkapen orokorrean, Euskal Selektzioa 9. izan zen nesketan Asturiarrek berdin duta, mutilak 8. izan ziren. Sailkapen bateratuan ere Euskadi 8. izan zen: "Marka ederak eta batez ere esperientzia berri eta motibagarria bi ahizpek bizitakoa, zorionak biei", adierazi du Borja Apeztegiak Buruntzaldea IKTren izenean.



Agenda

Ostirala, 19:30ean, Brigitarren Komentuan



Musika klasikoa komentuan

'Syrinx' ganbera-musika taldearen kontzertua izango da Danok Kidek antolatutako X.Musika Topaketan baitan ostiralean Brigitarren komentuko kaperan. Taldea Euskadiko Orkestrako lau irakasleek osatzen dute, Carlos Rosat flauta, Iciar Mugica Biolina, Mario Telentik espineta eta Tomas Ruti fagotarekin. Emanaldian Barroko berantiarreko piezak eskainiko dituzte Sammartin, Telemann, Vivaldi, Benda eta Quantz konpositoreen piezak hain zuzen. Ohi bezala kontzerturako sarrera doan izango da.

MERCERO ARETOA

Ostirala 8tik 15era, 19:00-21:00

Lasarte-Oriako Udalak, Antxota artisten elkarteak eta herriko sortzaile batzuek elkarlanean antolatu dute arte erakusketa berezi hau. Guztira bederatzi egileren obrez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Eskultura, pintura, musika, argazkilaritza eta zurgintza lanak dira, denera 50 bat.

Andoain

Musika

BASTERO

Ostirala, 21:30ean

Kalakan eta Oreka TX taldeen kontzertua. Oreka TX taldearen sonoritate Kalakan taldearen estiloarekin uztartua. Zuzenekoan bi taldeek helburu bakarra dute; ikusleek musika beraien intentsitate berberarekin sentitzea. Musikariak: Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte, Mixel Ducau, Iñigo Egia, Juanjo Otxandorena, Xan Errotabehera, Jamixel Bereau eta Thierry Biscary. Sarrera 15 euro.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

"Pride" filma Okendo Zinema taldearen zine forumean. 80. hamarkadan kokatzen da istorioa Erresuma Batuan. Homosexualitatea eta gatazka sozialak ditu oinarri. Urrezko Globoetan film onenaren sarira izendatua egon zen. Sarrera 5,50 euro.

Larunbata, 20:00etan

"Pride" filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Igandea, 17:00etan

"Cenicienta" filma haurren zinema atalean. Walt Disney-ren animaziozko filmaren bertsio berria da. Sarrera 3,70 euro.

Igandea, 19:30ean

"Pride" filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena, 19:30etan

Danok Kidek antolatutako Balioetan hezi XII. jardunaldiak egingo dira. "Gazteen balioak Europako etorkizuneari" hitzaldia eskainiko du Javier Elzo soziologoak. Sarrera irekia izango da.

Asteartea, 19:30etan

"Ekonomi politika inguruko balioen krisia" hitzaldia eskainiko du Patxi Meabek. Zientzia politikoetan irakaslea da eta ETIKARTE fundazioko kidea. Sarrera irekia.

Asteazkena, 19:30etan

"Balioak eta Gizartea Europako markoan" hitzaldia emango du Xabier Ibartzabal mediku eta giza zientzien irakasleak. Sarrera irekia.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarrion kanpainako selfie-ekin. "ElkarriOn adimen urritasuna duten pertsonak asko dute emateko" izan da kanpainaren leloa eta jendeak bidalitako argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 5etik 14ra, 18:00-21:00

"Umeak arriskuan" Jovenes y desarrollo Porto Novo Benim fundazioaren argazkiz osatutako erakusketa.

Usurbil

Antzerkia

SUTEGI

Larunbata, 22:00etan

Txaloren "Erdibana" antzezlan. Ama bat urteetan sartua, enbolia ta gripearrekin, baina hiltzeko oso gogo gutxi. 45 urteko semea du, hondatzen ari den enpresaren jabea bera, eta bera zaintzen duen 38 urtetako beste bat. Antzezleak Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza dira. Sarrera aurretik 8 euro eta egunean 10 euro. Lasarte-Orian maiatzaren 15ean ikusi ahalko da.

Herritarren txokoa

Gure Esku Dago

Aurreko larunbaterako jaialdian apustu batean parte hartzeko aukera izan zuten herritarrek txistorraren luzeera asmatzen zuen txistorra eta kamixeta zituen opari. "Xabier" izeneko herritar batek asmatu zuen eta txistorra ezean, kamixeta eskuratu dezakeela jakitera eman dute Gure Esku Dago lantaldeko kideek. Beraiekin harremanetan jar dadila eskatzen dute.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako.

Normalean hilabeteko iraupena duten erakusketak izaten dira

Jalgin jartzen direnak.

Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke.

Ez da zertan Lasarte-Oriakoa izan behar espazio hau erabiltzeko.

Oria eta Basaundiko Jaiak prestatzeko bilera

Ostegunean, maiatzaren 7a, 19:30ean izando da, La Esperanza Bizilagun Elkarteak lokalean auzoko jaiak antolatzeko bilera. Gurasoek eta auzoko gazteek parte hartzen duten jai-komisioa sortu behar dute eta horretarako auzotar guztiei bilerara joatera animatzen dituzte antolatzailerak. Helburua den artean jai-programa prestatzea da.

Sarean

Euskal izenen app berria

Jaiotzeko den ume bati ze izen jarri, erabaki garrantzitsua da. Bikote batzuk garbi izaten dute ze izen jarri datorkien haurrari. Baina beste askori, gai honek ematen die burukominik... ez dago irizpide bakarra erabaki hau hartzeko, baina ageria da bikote askok Internet eta liburuak kontsultatzen dituztela nolabaiteko laguntza bila. Buruan darabiltzaten aukerako izenaren esanahia, jatorria... ezagutzeko, alegia. Eta ondorioz, gustukoena aukeratzeko.

Horren adibide dira azkenaldian (ingelesez eta espainolez bereziki) ugalduekin diren izenak proposatzeko APPak (iphone eta androiderako). Halere, euskal izenak batzen duen aplikazioarik ez da orain arte egon.

Ondorioz, haurrari euskal deitura jartzeko interesa duten gurasoentzat oso lagungarria izan daitekeen Euskal Izenak aplikazioa garatu du Batura Mobile enpresak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz. Sortutako aplikazioa eskuratu ahal daiteke doan Apple Store edo Google Playn.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Dantza kalera atera zen

Hirugarren urtez gurean ere ospatu zen Dantzaren Nazioarteko eguna

Dantzaren nazioarteko eguna ospatu zen asteazkenean gurean. Kukukaren ekimenez, herriko hainbat dantza eskolek saio berezia eskaini zuten Okendo plazan. Bertan, Kukuka, Semblante Andaluz, Erketz eta Amaia Gonzalezen eskolako ikasleek hainbat pauso erakutsi eta dantzan jarri zituzten herritarrak. Ekimenari amaiera emateko, manifestuaren irakurketa egin zen koreografia baten laguntzaz.

TXINTXARRI

Dantzaren nazioarteko eguna izan zen asteazkenean eta herriko hainbat dantza eskoletan egiten den lana ikusi ahal izan zuten herritarrek Okendo plazan. Kukukako dantza eskolakoek hainbat pauso erakutsi eta dantzatu zituzten, Semblante Andaluzeko taldeetako batek, sevillana bat erakutsi zuen, Erketzekoek dantza arabar baten zatitxo bat ekarri zuten plazara eta Amaia Caballeroen ikasleek berriz, 'rueda cubana' bat eskaini zuten.

Irakasleek pausuak azaldu

eta nahi izan zuten herritarrek hauek ikasi eta dantzatu ahal izan zituzten. Giro ederra sortu zen Okendon eta dantzari trebeekin batera, ederki moldatu ziren herritar hasi berriak.

Erakustaldi guztien ostean, Israel Galvan koreografoak idatzitako manifestua irakurri zen. "Dantza edonon dago, jendea dantzan ari da kaleetan eta ez da konturatzen, dantzatzen ez dutenek ez dute zorterik, hilda daude, ez dute sentitzen". Koreografia polita eskaini zuten Maider Oiartzabal eta Marta Ortega Kukukako irakasleek ekitaldiari amaiera emateko Galvanen hitzak fondoan.



Lierni Rekondo Gipuzkoako txapelkun bertso idatzietan

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako Finala pasa den igandean jokatu zen Irunen. Lierni Rekondo lasarteoriatarra izan zen txapelketa idatzizko edo bertso paperen alorreko txapelketa. Gaia honakoa zuen: 'Lurra, ilargia, Marte... Zein dira gizakiaren mugak?' eta berak hiru bertso hauek idatzi zituen "Eta ren su-etenetik" doinuan.

1.Muga bat izan daiteke inguratzen nauen gela, emakumeen kontrako indarkeria krudela, lur garbitu berrietan gelditu ohi den umela, etxera goiz iristeko jartzen zaigun erregela.

Ongia edo gaizkia azkarra edo motela, fisiko izan daiteke psikologiko bestela... Nik esango nuke mugak erlatiboak direla.

2.Bakoitzak aukeratzen du bizi nahi duen kondena baina sarri ahazten zaigu benetan gu geu garena. Jakinean pizten dugu txikitasunaren dema buruak mugitzen baitu barneko gezurren lema. Lasai hausnartu ondoren argi ikusten dut dena eta ohartu naiz zein den arazorik handiena norbera dela aurrean mugak jartzen dituen.

3.Aurrera begiratzeak nahiz sortzen digun ikara nahiz ta arazo bakoitzak azkartzen digun taupada traba guztiak kentzeko garaia badugu jada zaila suertatu daiteke, zailegia beharbada... Nahi dugun dena lortzeko denok soberan gai gara eta amets egiteko aukerarik onena da; apurtu ditzagun mugak sentitzen dugun erara.

Bestalde, Asier Iburguren ere hartu zuen parte Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketan. Asier jaiotzez donostiarra da, baina duela lau bat urtetik dabil herriko Earra! bertso eskolan.



Lierni Rekondo herritar gaztea Gipuzkoako txapela buruan duela.

Txapelketan parte hartzen zuten lehen aldia zen eta finalerako txartela eskuratzeaz gain finalean ere saio txukuna

egitea lortu zuen. Orain, lanean jarraituko dute Ane Labaka bertsolaria irakasle lanetan dutela.



**LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA**

**Batxilerrerako
aurrematrikula,
Maiatzaren 4tik 14ra**

www.instilasarte.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

